

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2007KO ABENDUA


Euskal AEko industriako jarduera %1,3 jaitsi zen 2007ko abenduan

Industri Produkzioaren Indizeak urtean zehar %2,8ko hazkundera izan du

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2007ko abenduan, lan egutegiko termino homogeneotan %1,3an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2006ko hil beraren aldean. 2007 guztirako hazkunde-tasa metatua %2,8 izan zen, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2007ko abenduan %1,0 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, azaroarekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: Eustat

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2007ko abenduko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2006ko abenduaren aldean: Ekipo-ondasunak %0,5 hazi ziren eta Bitarteko ondasunak %-1,3 jaitsi ziren. Energiak (%-2,3) eta Kontsumo-ondasunek (%-4,1) behera egin zuten, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-16,7) izandako jaitsieraren eraginez. Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek gora egin zuten (%2,5) .

Azaroaren aldean, 2007ko abenduko hil arteko aldakuntzak bilakaera ezberdinak izan ditu industri sektore handi guztietan. Ekipo-ondasunak %2,0 hazi dira; Bitarteko ondasunek aldaketarik ez (%0,0); Energia %0,8 jaitsi da; Kontsumo-ondasunek, aldiz, %4,1eko hazkundera izan dute, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek izan duten igoeraren ondorioz (%6,7); izan ere Kontsumo-ondasun iraunkorrek %1,3ko jaitsiera izan baitzuten.

Lurralde historikoei dagokienez, abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%1,0); Bizkaian %-0,6 jaitsi da eta Gipuzkoan %-3,3. Hil arteko tasak positiboak izan dira Araban (%4,7) eta Bizkaian (%0,5); Gipuzkoan %-0,4ko jaitsiera izan da.

2007ko industri jardueraren balantzea

Euskal AEn, 2007ko balantzea Industri Produkzioaren Indizearen %2,8ko hazkunde metatuarekin itxi da. Tasa hori aurreko urtean lortutakoaren azpitik (%4,1) da

Industri sektore handiek hainbat eratako aldakuntzak izan dituzte urteko metatuan. Ekipo-ondasunak %6,4 igo dira, eta Bitarteko ondasunak %3,7. Energia %-2,8 jaitsi da eta Kontsumo-ondasunak, oro har, %-2,6 jaitsi dira. Horien baitan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %-2,8 jaitsi dira, eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak, berriz, %-2,5, 2006 urtearen aldean.

2007an metatutako aldakuntzak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %3,7; Bizkaian %2,5 eta Araban %1,7.

Taula: 2007ko ABENDUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestacionalizatua	
	Abe07 / Abe06	At / At-1 (1)	Abe07 / Aza07	Aza07 / Urr07
Indize orokorra: Euskal AE	-1,3	2,8	1,0	-1,8
Araba	1,0	1,7	4,7	-4,2
Bizkaia	-0,6	2,5	0,5	-0,9
Gipuzkoa	-3,3	3,7	-0,4	-1,4
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,1	-2,6	4,1	-5,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-16,7	-2,8	-1,3	-4,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,5	-2,5	6,7	-5,8
Ekipo-ondasunak	0,5	6,4	2,0	-3,5
Bitarteko ondasunak	-1,3	3,7	0,0	-1,4
Energia	-2,3	-2,8	-0,8	5,6

(1) t urteko urtariletik azken hilerara arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp